



IRABAZI DUZU KUTXABANKen KANPAINA

1.- Zertan datza kanpaina hau?

KUTXABANK SAK (aurrerantzean, "Kutxabank edo Bankua") merkataritza-ekintza bat egingo du, eta bertan parte hartu ahal izango dute oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten 18 eta 26 urte bitarteko (bi adinak barne) pertsona fisiko guztiek. Kanpaina honen xede bakar eta nagusia publizitatea eta sustapena da, eta parte-hartzaileak ez dauka kostu gehigarririk.

2.- Ze sari jaso dezakezu Kanpaina honetan parte hartzeagatik?

Kanpaina honek honako sari hauek ditu: 5.000 sari emango dira, eta saridun bakoitzak 40 euroko marka anitzeko txartel bat jasoko du www.telohasganado.es/www.irabaziduzu.eus plataforman trukatzeko. Irabazleak marka askotako produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko erabili ahal izango du txartel hori, Ticketmaster, Spotify, Apple, Decathlon, Adidas eta Zalando marketakoak, besteak beste.

Teknika- edo osasun-arloko arrazoiengatik, nahitaezko kasuengatik edo Kutxabanken borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik markaren bat plataformatik ezabatzen bada, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko, eta, kasu horretan, sarituak kanpainaz arduratzen den hornitzailearen beste plataforma batean trukatu ahal izango du bonua.

3.- Zenbat iraungo du kanpainak?

Kanpaina 2025eko ekainaren 30ean hasi eta 2025eko irailaren 15ean amaituko da, bi egun horiek barne, edo, bestela, 5.000 sariak esleitzen direnean.

Kutxabankek kanpaina hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea du, edo kanpainaren baldintzaren bat aldatzekoa, baldin eta arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, nahitaezko kausengatik edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik kanpainaren garapen normala bete ezin bada; Kutxabankek ez du horregatik inolako erantzukizunik izango. Kasu horretan, kanpainako oinarri eta baldintzen edo kanpainaren ezeztatzearen berri emango dugu ahalik eta lasterren.

Horrez gain, Kutxabankekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik sarituak ezin badu saria baliatu, Kutxabankek ez du erantzukizunik hartuko bere gain.

4.- Ze baldintza bete behar dituzu Kanpaina honetan parte hartzeko?

Kanpaina hau amaitzen den egunean, hau da, 2025eko irailaren 15ean, Kutxabankeko bezero izanik, honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten lehen 5.000 pertsonak parte har dezakete kanpaina honetan:

- Egoitza fiskala Espainian izatea, Kutxabanken fitxategietan jasotako informazioaren arabera.
- 18 eta 26 urte bitartekoa izatea.
- Kutxabanken aurrezki-kontu bat eta Bizum zerbitzua izatea.



- Kontratututako zerbitzu horiek gutxienez 12 hilabetez mantendu behar dira kanpainaren amaierako egunetik aurrera. Kanpainan parte hartzeko aukera eman dizuten posizioak ezeztatzen badituzu, kanpainatik kanpo geratuko zara. Ordurako saria jaso baduzu, Kutxabankek sariaren zenbatekoa kobratu ahal izango dizu.
- Ekainean, uztailan edo abuztuan gutxienez 200 euroko nomina izatea, betiere baldintza hauek ere betetzen badituzu:
 - Kanpaina honetan, honako hau izango da nomina bat: enpresa ordaintzaileak nominagatik sortzen duen eta erakundeak jasotzen duen ordainketa-agindua, nominaren onuradunaren kontuan zuzenean abonatzeko.
 - Kanpaina hasi aurreko 8 hilabetetan nomina hori bera ez jasotzea.
 - Aurretik Kutxabanken nomina helbideratzeagatik emandako pizgarririk jaso ez izana. Hala ere, Kanpaina hau bateragarria da nomina helbideratzeagatik ondoren jaso dezakezun pizgarriarekin.
- www.kutxabank.es webgunean sartzea eta Kanpaina honen formularioa betetzea.
- Oinarri hauek irakurri eta onartzea.

5.- Nortzuk geratuko dira Kanpaina honetatik kanpo?

- Kanpaina bitartean eta saria jaso arte mugaeguneraturiko saldo zordunak, hau da, saldo negatiboak, dituzten pertsonak.
- Kapital-zuriketako fitxategietan dauden pertsonak.
- Datuak babesteko araudiaren baitan publizitaterik ez jasotzea eskatu duten pertsonak edo jakinarazpen komertzialik ez jasotzeko fitxategiren baten barruan daudenak.

6.- Zein da Kanpainaren mekanika?

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak eta, zehazki, 4. paragrafoan aipatutako betekizunak betetzen dituzten lehenengo 5.000 parte-hartzaileei kanpaina honetaz arduratzen den hornitzailearen webgunean zehaztutako plataforma digitaletan trukatzeko 40 euroko bonua emango zaie: Chequemotiva.

Kutxabankek kanpoan utz zaitzake, kanpaina honetan parte hartzeko formularioa bete baduzu ere, saria jasotzeko oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez badituzu.

Pertsona bakoitzak sari bakarra eskura dezake.

7.- Nola jakinaraziko dizugu sariduna zarela?

Posta elektronikoz jakinaraziko dizugu saria eman zaizula, ondorio guztietarako, fiskalak barne.

Kutxabankek ez du erantzukizunik izango, eman dizkiguzun datuetan akatsen bat badago eta, ondorioz, zure identifikazioa eta/edo lokalizazioa ezinezkoa bada, eta, beraz, ezinezkoa bada saria zuri ematea.

Posta elektronikoko horri hornitzailearen webgunean truka daitekeen bonua erantsiko zaio. Kanpainaz arduratzen den hornitzaileak bidaliko du bonua.

Saria esleitzeko, oinarriak onartu behar dituzu eta oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak bete behar dituzu. Kutxabankek kanpainatik kentzeko eskubidea du, arrazoi justifikatuengatik, oinarri hauek bete ez badituzu. Ezin izango duzu saririk jaso, baldin eta kanpainaren amaiera-



datan edo saria ematerakoan bertan behera utzi badituzu kanpaina horretan parte hartzeko aukera ematen zizuten posizioak.

8.- Saria aldatzeko eskaria egin dezakezu?

Kanpaina honetan jasoko duzun saria ezin da, inola ere, aldatu, moldatu edo haren balioari dagokion eskudiruairengatik trukatu. Kutxabankek saria ordezkatu dezake, bidezko edo nahitaezko arrazoiengatik.

9.- Sariari uko egin ahal diozu?

Sariari uko egin ahal diozu, baina ezin diozu beste inori laga. Kasu horretan, saria automatikoki esleitu zaio oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituen hurrengo pertsonari, zehaztuta dagoen hurrenkeran.

Sariari uko egin nahi badiozu, sariaren berri eman eta hurrengo 5 egun naturalen barruan idatziz jakinarazi behar diozu Bankuari; ordainetan ez duzu beste ezer jasoko.

10. - Zein da Kutxabanken erantzukizuna saridunari bonua eman ondoren?

Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko Bonua eman ondoren.

Une horretatik aurrera, edozein kontsulta edo gorabehera izanez gero, Chequemotivara jo behar duzu, jarraian zehazten diren harremanetarako datuen bidez, eta hura izango da bonua esleitzen zaizunetik aurrera eratorritako edozein kalteren edo galeren erantzulea.

Chequemotivaren harremanetarako datuak: (*)

- Telefonoa: 91 426 3880
- Helbidea: Alcalá 106. 28009 Madril.
- Webgunea: www.chequemotiva.com
- Helbide elektronikoa: info@gift4.es / info@chequemotiva.com

Bankuak ez du erantzukizunik ez kudeaketagatik, ez egindako ekintzengatik, ez Chequemotivak emandako zerbitzuengatik, ez kanpaina hau egiteko kontratatatu dituen profesionalengatik.

Bonua trukatzeko zehaztapen eta baldintzak Chequemotivak ezarritakoak dira, eta Kutxabankek ez du bere gain hartzen harreman horretatik eratorritako inolako erantzukizunik. Hau da, Kutxabank ez da harreman horren parte eta ez dauka hura interpretatzeko beharrik. Kanpaina hau gauzatzearen arduradun bakarra Chequemotiva da, eta kanpainaren gauzatze hori haren zehaztapen eta baldintzen arabera arautzen da.

Kanpaina gauatzeko moduaren inguruan parte-hartzaileek egin ditzaketen erreklamazioen aurrean, Kutxabankek ez du bere gain hartuko inolako erantzukizun edo betebeharrik.

11. Nola tratatuko ditugu zure datu pertsonalak?

Kanpainan parte hartzeak parte-hartzaileen datu pertsonalak Kutxabankeko Informazio Sisteman sartzea dakar, parte-hartze hori kudeatzeko.

Datuak edozein publizitate edota sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, zure izena, abizenak edota irudia jasotzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko helburuarekin tratatuko dira soil-soilik. Ekinbide horiek ez dute ordainsari edo etekinik eskuratzeko eskubiderik sortuko, saridunaren edo, hala dagokionean, bere lege-ordezkararen baimena berariaz jasota badago.

Horrez gain, jakinarazten dugu datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia daukan edozein arazoren aurrean, kontrolerako agintaritzan erreklamazio bat aurkez daitekeela edonoiz.



Halaber, datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, aurka agertu, tratamendua mugatu eta lekualdaketa eskatzeko eskubidea ere badago, bai eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko ere. Eskubide horiek guztiak idatziz gauzatu daitezke, Kutxabanken helbidera bidalitako jakinarazpenen bidez, edo posta elektronikoz, helbide honetara: info@kutxabank.es. Bi kasu horietan, beharrezkoa bada, nortasuna frogatzeko agiri bat erantsi beharko da.

Zure datu pertsonalak araudiak esan bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke dpo@grupokutxabank.com helbidean.

11. Zein da zure sariak izango duen zerga-tratamendua?

Sarituak bere gain hartu beharko ditu kanpaina honetako sariak ekar ditzaketen zerga-arloko kargak.

12. Lege-oinarriak

Kanpaina honetan parte hartzen baduzu lege-oinarriak onartzen dituzula ulertuko da, hala kanpainaren mekanikari dagokionez nola berariazko baimenik behar ez duten alderdiei dagokienez. Oinarriok bete ez dituzten erabiltzaileak Kanpainatik kanporatzeko eskubidea izango du Kutxabankek.

Oinarriok bezeroen eskura egongo dira www.kutxabank.es webgunean.